**EBAZPENA, 2026KO OTSAILAREN 23KOA, FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARIARENA, BORONDATEZKO GIZARTE - AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEEN ARLOKO HAINBAT DEKRETU BATERATZEN DITUEN DEKRETU BAT EGITEKO HERRITARREI AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA**

**RESOLUCIÓN DE 23 DE FEBRERO DE 2026 DE LA DIRECTORA DE POLÍTICA FINANCIERA Y PREVISIÓN SOCIAL POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA A LA CIUDADANÍA LA ELABORACIÓN DE UN DECRETO POR EL QUE SE UNIFICAN DIVERSOS DECRETOS EN MATERIA DE ENTIDADES DE PREVISIÓN SOCIAL VOLUNTARIA**

Ogasun eta Finantza Sailak egokitzat jotzen du Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (aurrerantzean, BGAE) arloko hainbat dekretutan sakabanatutako araudia bateratzeko Dekretua egiten hastea.

El Departamento de Hacienda y Finanzas considera oportuno iniciar la elaboración de un Decreto por el que se unifique la normativa dispersa en diversos Decretos en materia de Entidades de Previsión Social Voluntaria (en adelante, EPSV).

Zehazki, honako dekretu hauek arau-multzo bakar batean bateratzea aurreikusten da:

- 87/1984 Dekretua, urriaren 27koa, Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, borondatezko aurreikuspeneko erakundeen zenbait jarduera arautzen dituena.
- 203/2015 Dekretua, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- 13/2024 Dekretua, otsailaren 13koa, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloko zenbait dekretu aldatzen dituena.

En concreto, se prevé unificar en un solo cuerpo normativo los siguientes decretos:

- El Decreto 87/1984, de 27 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley sobre Entidades de Previsión Social.
- El Decreto 92/2007, de 29 de mayo, por el que se regula el ejercicio de determinadas actividades de las Entidades de Previsión Voluntaria.
- El Decreto 203/2015, de 27 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 5/2012, de 23 de febrero, sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria.
- El Decreto 13/2024, de 13 de febrero, por el que se modifican diversos decretos en materia de Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 90 19 – Fax 945 01 90 20

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T7WNK-YDSX
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** ARANTZA LARRAURI ARANGUREN | 2026/02/23 16:36:10

Era berean, BGAEen inbertsioen arloko arauketa aldatu eta zabaldu egingo da, gobernu-programan xedatutakoa betez, euskal industria, enpresa eta teknologia sarean errotzea eta haztea ahalbidetuko duten proiektuetan inbertitzen laguntzeko.

Asimismo, se modificará y ampliará la regulación en materia de las inversiones de las EPSV, en cumplimiento de lo dispuesto en el programa de gobierno, para favorecer la inversión en proyectos que permitan el arraigo y crecimiento del tejido industrial, empresarial y tecnológico vasco.

Azkenik, BGAEen arloan indarrean dagoen araudia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamenera egokituko da. Horren bidez, (EB) 2016/2341 eta 2016/97 zuzentarauak aldatzen dira, gizarte-aurreikuspen osagarrirako esparrua indartzeari dagokionez (enplegu-pentsioak).

Finalmente, se adecuará la normativa vigente en materia de EPSV a la propuesta de Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo por la que se modifican las Directivas (UE) 2016/2341 y 2016/97 en lo relativo al refuerzo del marco para la previsión social complementaria (pensiones de empleo).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluak xedatzen duenez, arau-testu juridikoen proposamenak idatzi aurretik, kontsulta publikoan eskatuko da iritzia herritarren gizartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taularen bidez.

El artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, dispone que con carácter previo a la redacción de las propuestas de textos jurídicos normativos se recabará en consulta pública la opinión en la sociedad de la ciudadanía, a través del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ebazpen honen bidez, ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako aurretiazko kontsultaren izapidea betetzen da, etorkizuneko arauaren eraginpeko herritarrek iritzia emateko aukera izan dezaten.

Mediante la presente resolución, se da cumplimiento al citado trámite de consulta previa previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, a los efectos de que, la ciudadanía afectada por la futura norma, tengan la posibilidad de emitir su opinión.

Horregatik guztiagatik, BERARIAZ GONBIDATZEN DITUGU HERRITARRAK EBAZPEN honetan jasotzen den informazioari buruz IRITZIA EMATERA, etorkizunean egingo den xedapen orokorrari buruz.

Por todo ello, se INVITA EXPRESAMENTE A LA CIUDADANÍA A PRONUNCIARSE acerca de la información que se contiene en la presente resolución sobre la futura disposición de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.

Etorkizuneko arauari buruzko informazioa eranskinean jasota dago, eta honako alderdi hauei buruzkoa da:

- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

- Arauaren helburuak.

- Konpondu nahi diren arazoak.

- Egon daitezkeen ordezko irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

15 egun balioduneko epea ezartzen da, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan sartu eta hurrengo egunetik hasita, herritarrek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta-izapide hau arau-proiektua egin aurretik egiten da, xedapen orokor bat "Prestatzeko" fasearen barruan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean (11. artikulua) aurreikusia.

Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT:**

**Lehenengoa**.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen arloko hainbat dekretu aldatzen dituen Dekretu bat egiteko, aldez aurreko

La información sobre la futura norma se contiene en el Anexo y versa sobre los siguientes aspectos:

- La necesidad y oportunidad de su aprobación.

- Los objetivos de la norma.

- Los problemas que se pretenden solucionar.

- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Se establece un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente resolución, para que la ciudadanía presente todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

El presente trámite de consulta se efectúa, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo, dentro de la fase de “Preparación” de una disposición de carácter general, prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 11).

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas,

**RESUELVO:**

**Primero.-** Someter a trámite de consulta previa a la ciudadanía, con carácter previo a su elaboración, la elaboración de un Decreto por el que

kontsultaren izapidea egitea herritarrei, egin aurretik.

**Bigarrena.-** Herritarrek, hala uste badute, ebazpen honen eranskinean azaldutako alderdiei buruzko iritziak eman ditzakete 15 egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 23a

**ARANTZA LARRAURI ARANGUREN**
**Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaria**

se unifiquen diversos Decretos en materia de Entidades de Previsión Social Voluntaria.

**Segundo.-** La ciudadanía, que así lo considere, puede hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta resolución en el plazo de 15 días hábiles, contado desde el día siguiente al de su publicación en el del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Vitoria-Gasteiz, 23 de febrero de 2026

**ARANTZA LARRAURI ARANGUREN**
**Directora de Política Financiera y Previsión Social**

## ERANSKINA

Onartzeko beharra eta egokitasuna

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek, eragindako pertsonak ustekabeko edo aurreikus daitezkeen zirkunstantzia edo gertakarien aurka babestera bideratutako erakunde gisa, beren jarduera ez dute ingurune estatikoan garatzen, dinamikoan eta aldakorrean baizik. Horregatik, beharrezkoa da horiek arautzen dituen araudia dekretu bakar batean bateratzea, arau-ezagutzaren eskakizun berriei egokitzeko eta erantzuteko.

**Arauaren helburuak**

Egin nahi den Dekretuaren helburua BGAEen arloan gaur egun indarrean dauden lau Dekretuetan jasotako legeria bateratzea izango da, horien erregulaziorako sarbidea errazteko eta sektoreko egungo egoeretara egokitzeko. Era berean, gobernu-programa nola beteko den zehaztuko da, EAEko BGAEen erregulazioa aldatu eta zabaltzeko, EAEko industria-, enpresa- eta teknologia-ehuna errotzea eta haztea ahalbidetuko duten proiektuetan inbertitzen laguntzeko. Azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamenera egokituko da (EB) 2016/2341 eta 2016/97 zuzentarauak aldatzen dituena, gizarte-aurreikuspen osagarrirako esparrua indartzeari dagokionez (enplegu-pentsioak).

## ANEXO

**La necesidad y oportunidad de su aprobación**

Las entidades de previsión social voluntaria, como entidades encaminadas a proteger a las personas afectadas contra las circunstancias o acontecimientos de carácter fortuito o previsible, desarrollan su actividad en un entorno no estático, sino dinámico y cambiante. Es por ello preciso unificar en un solo decreto la normativa que las regula de forma que se adecue y dé respuesta a las nuevas exigencias de conocimiento normativo.

**Los objetivos de la norma**

El Decreto que se pretende elaborar tendrá por objeto unificar la legislación contenida en los cuatro Decretos actualmente en vigor en materia de EPSV a los efectos de facilitar el acceso a su regulación, adecuándolos a las actuales circunstancias del sector. Asimismo se concretará el cumplimiento del programa de gobierno con el objetivo de modificar y ampliar la regulación de las EPSV vascas para favorecer la inversión en proyectos que permitan el arraigo y crecimiento del tejido industrial, empresarial y tecnológico vasco. Por último, se procederá a la adecuación a la propuesta de Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo por la que se modifican las Directivas (UE) 2016/2341 y 2016/97 en lo relativo al refuerzo del marco para la previsión social complementaria (pensiones de empleo).

**Konpondu nahi diren arazoak**

BGAEen jarduera, oro har, behar bezala garatzen da, bai beren helburuak betetzeari dagokionez, bai jarduera hori arautzen duen araudia betetzeari dagokionez. Hala ere, BGAEen Legearen erregelamendu-garapen osoa arau-testu bakar batean biltzeko beharra antzeman da.

**Los problemas que se pretenden solucionar**

La actividad de las EPSV se desarrolla, en general, adecuadamente, tanto en lo que respecta al cumplimiento de sus objetivos y finalidades, como al cumplimiento de la normativa que regula esa actividad. Sin embargo, se ha detectado la necesidad de compilar en un solo texto normativo todo el desarrollo reglamentario de la Ley de EPSV.

**Ordezko irtenbide erregulatzaile eta ez-erregulatzaile posibleak**

Neurri handi batean araututa dago BGAEen jarduera, herritarrentzat duen garrantzia, jarduera hori gero eta gehiago orokortzen ari dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak jarduera hori gainbegiratu behar duela kontuan hartuta. Horregatik, ez dago aldaketa horren beste aukerarik.

**Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

La actividad de las EPSV, dada su trascendencia para la ciudadanía, la cada vez mayor generalización de la misma, así como la necesaria supervisión de la misma que debe llevar a cabo la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, está en gran medida normado. Por ello, no existe otra alternativa a la modificación de la misma que se pretende.